

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**FORU ADMINISTRAZIOKO ETA FUNTZIO
PUBLIKOKO DEPARTAMENTUA**

2013ko abenduaren 17ko 46/2013 FORU DEKRETUA, Donostia udalerriko Igeldo herrigunea bereizi eta udalerrri banandu berri bat eratzea onartzen duena.

2010eko martxoaren 16ko 6/2010 Foru Dekretu bidez, ezetsi egin zen Igeldo Donostia udalerritik bereizi eta udalerrri berri bat eratzeko eskaera. Eskaera hori «Itxas Aurre» batzorde sustatzaileak aurkeztu zuen Donostiako Udalean 1995eko otsailaren 14an.

2010eko martxoaren 16ko 6/2010 Foru Dekretu horretan, espedientearen tramitazio luzean gertatutako gorabeherak azaldu ondoren, banan-banan aztertzen dira kasu horri aplikagarri zaion toki araubideko araudiak ezarritako baldintzak, alegia, honako arau hauek ezarritakoak: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (TAOL); 781/1986 Legegintzako Errege-Dekretua, apirilaren 18koa, Toki-araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzeko duena (TATB); eta 1690/1986 Errege Dekretua, uztailearen 11koa, Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua onartzen duena.

Bereizketa hori egiteko nahitaezko baldintzak aztertzean, ondorioztatu zen aipatu araudi horretan ezarritako baldintza batzuk betetzen zirela, baina adierazi zen udalerrri berriak ez lukeela bideragarritasun ekonomikorik izango eta ez zela ematen herri onurako arrazoi iraunkorrik.

2010eko martxoaren 16ko aipatu 6/2010 Foru Dekretu horren aurka «Itxas Aurre» batzorde sustatzaileak administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian (400/10-1 zk.). Prozedura hori 2012ko uztailearen 16ko Dekretu bidez eten zen, alde guztiek hala eskatuta, eta ondoren, behin-behinean artxibatua geratu zen Auzitegi Nagusiaren 2012ko abenduaren 3ko Auto bidez, beti ere alderen batek prozesua jarraitzea eskatu arte edo auzialdia iraungi arte.

2013ko ekainaren 3an «Itxas Aurre» batzorde sustatzaileak agiri eguneratuak aurkeztu zituen Gipuzkoako Foru Aldundian, prozedurari jarraipena emateko, eta aldundiak eskaera ikusita, batetik, entzunaldia eman zion Donostiako Udalari, «Itxas Aurre» batzorde sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioa bidaliz, eta bestetik, Diputatuen Kontseiluaren 2013ko irailaren 24ko Erabaki bidez, herri galdeketa egitea onartu zuen, igeldotarrek Igeldo auzoa Donostiatik bereizteko aukeraz zer iritziz zuten jakin ahal izateko.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko urriaren 14ko antolaketa eginbidearen bidez, behin-behinean artxibatutako administrazioarekiko auzi errekurtsioa berrabiarazi zen.

2013ko azaroaren 4an, Donostiako Udalak hainbat agiri aurkeztu zituen «Itxas Aurre» batzorde sustatzaileak aurkeztu dokumentazioaren ondorioz emandako entzunaldian eta, 2013ko azaroaren 26an, dokumentazio hori osatu egin zuen. Bestetik, 2013ko azaroaren 10ean, aipatu herri galdeketa egin zen, igeldotarrek Igeldo auzoa Donostiatik bereizteko aukeraz zer iritziz zuten jakin ahal izateko; emaitza bereizketaren aldekoa izan zen.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACION FORAL Y
FUNCION PUBLICA**

DECRETO FORAL 46/2013, de 17 de diciembre, por el que se aprueba la segregación del núcleo de población de Igeldo perteneciente al municipio de San Sebastián y su constitución en un nuevo municipio independiente.

Mediante Decreto Foral 6/2010, de 16 de marzo, se desestimó la solicitud de segregación de Igeldo del municipio de San Sebastián para constituir un nuevo municipio, formulada por la Comisión Promotora «Itxas-Aurre» ante el Ayuntamiento de San Sebastián con fecha 14 de febrero de 1995.

En el citado Decreto Foral 6/2010, de 16 de marzo, tras la exposición de las distintas vicisitudes habidas en la prolongada tramitación del expediente, se analiza si concurren los requisitos que la legislación de régimen local aplicable al caso establece para la constitución de nuevos municipios, a saber, la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local (LBRL), el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril (TRRL) y el Reglamento de Población y Demarcación Territorial aprobado por Real Decreto 1690/1986, de 11 de julio (RPDT).

En el análisis sobre el cumplimiento de los requisitos necesarios para la segregación se reconocía el cumplimiento de algunos requisitos establecidos en dicha normativa, pero se señalaba que el nuevo municipio resultaría económicamente inviable y que no concurría el requisito de la existencia de motivos permanentes de interés público.

Contra el citado Decreto Foral 6/2010, de 16 de marzo, la Comisión Promotora «Itxas-Aurre» interpuso recurso contencioso-administrativo (n.º 400/10-1) ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (TSJPV), quedando el curso de los autos suspendido por Decreto de fecha de 16 de julio de 2012, a petición de todas las partes, y después archivado provisionalmente, mediante Auto del TSJPV de 3 de diciembre de 2012, hasta que cualquiera de las partes solicitara su reanudación o se produjera la caducidad de la instancia.

El pasado 3 de junio de 2013 la Comisión Promotora «Itxas Aurre» presentó documentación actualizada para la reanudación del procedimiento ante la Diputación Foral de Gipuzkoa, quien a la vista de la petición, por un lado, dio audiencia al Ayuntamiento de San Sebastián, remitiéndole la documentación presentada por la Comisión Promotora «Itxas-Aurre» y, por otro, aprobó realizar una consulta popular para conocer la opinión de la ciudadanía del barrio de Igeldo sobre su posible desanexión de San Sebastián, mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 24 de setiembre de 2013.

Por su parte, mediante diligencia de ordenación del TSJPV de 14 de octubre de 2013, a petición del Ayuntamiento de San Sebastián, se reanudó el procedimiento contencioso-administrativo archivado provisionalmente.

El 4 de noviembre de 2013, el Ayuntamiento de San Sebastián aportó diversa documentación en el trámite de audiencia concedido ante la presentación de documentación por parte de la Comisión Promotora «Itxas-Aurre», que completó posteriormente el 26 de noviembre de 2013, y el 10 de noviembre de 2013 se celebró la consulta popular para conocer la opinión de la ciudadanía del barrio de Igeldo sobre su posible desanexión de San Sebastián, con un resultado favorable a la misma.

Ikusita «Itxas Aurre» batzorde sustatzaileak 2013ko ekainaren 3ko bere eskaerarekin batera aurkeztutako agiriak, Donostiako Udalak aurrekoari erantzunez aurkeztutakoak, 2013ko azaroaren 10ean egindako herri galdeketa emaitza eta ondoren egin diren gainerako txostenak, honakoa adierazten da bereizketa prozedura honi aplikagarri zitaion araudian ezarritako eta 2010eko martxoaren 16ko 6/2010 Foru Dekretuan ez betetzat jotako baldintzen inguruan:

Batetik, bideragarritasun ekonomikoaren baldintzari dagokionez, ondorioztatu da egiaztatua geratu dela Igeldo udalerrri berria ekonomikoki bideragarria izango litzatekeela, bere neurri bereko beste udalerrriak diren moduan.

Bestetik, herri onurako arrazoi iraunkorrei dagokienez, Estatuko Kontseiluak hainbat irizpenetan ulertu du, 2010eko martxoaren 16ko 6/2010 Foru Dekretuan adierazi moduan, TATBeko 6 artikulua aipatzen dituen herri onurako arrazoen zerrenda ez dela itxia, antzeko arrazoen aipua egiten amaitzen duelako eta, hortaz, legearen interpretaziorako tarte bat zabalitzen duelako. Herri onuraren kontzeptua kontzeptu juridiko zehaztugabe bat da, egoera bakoitzean zehaztu behar dena.

Horrela, 2010eko martxoaren 16ko 6/2010 Foru Dekretuak herri onura foru araugileak Gipuzkoako Lurralde Historikoko lurralde antolaketako politikan dituen helburuekin identifikatzen du. Eta ondorioz, adierazten du, Gipuzkoako Udal Barrutiak erregulatzen dituen 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, hitzaurrean, honako hau diola: «Gaur egungo udal mapatik abiatuta eta arrazoizkoa izan dadin helburutzat hartuta, argi dago foru erakundeek udalerrri ezberdinak bategitea eta udalerrri batzuk besteei atxikitzea bultzatu behar dutela, beti udalen autonomia ahalik eta gehien errespetatuta eta gizarte, ekonomia eta administrazio bizitzaren alor guztietan dituzten baliabideen kudeaketa eraginkorrago izan dadin ahaleginduta, hartara zerbitzu hobeak kostu txikiagorekin ematearren gaur egun gizarteak eskatzen duen bezala», eta baita honako hau ere: «Udalerrri berriak eratzeke nahitaezko beharkizunak izango dira bertako herri zerbitzugintza hobetzeko behar beste ekonomia-finantza baliabideak edukitzea, gutxienez behar den biztanleria izatea eta egoki garatzeko adinako lurralde taxuera izatea».

Halaber, aipatu foru dekretuak herri onura Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak arautzen dituen 2007ko apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauan jasotzen den honako baieztapen honekin identifikatzen du: «Gipuzkoako Lurralde historikoan 88 udalerrri daude, baina horietatik 57 udalerririk 5.000 biztanle baino gutxiago ditu eta biztanleen %25 baino gehiago hiriburuan bizi da. Horrek mugatu egiten du udal egitura, izan ere biztanle gehienak udalerrri gutxi batzuetan bizi dira, batetik, eta tamaina oso txikiko udalerrri asko daude, bestetik, Hori ikusirik, eta zerbitzu publikoak emateak dituen exijentziei erantzuteko ekonomi eta finantza askitasuna edukitzea ezinbesteko denez, beharrezko da udal elkarteak egoki definitzea eta sendotzea.» Eta baieztapen hori udal egiturak zatikatzearen kontrako eta udalerrrien atxikitze eta bategitearen aldeko borondatearen adierazpena dela interpretatzen da.

Edonola ere, Igeldoko herritarrek bere nahia adierazi dute, bai 2013ko azaroaren 10ean egindako herri galdeketa bereizketaren aldeko jarrera erakutsiz, baita 1995 urtean egindako herri galdeketa nahiz tarteko urte guztietan erakutsi duten desanexioaren aldeko aldarrikapen tinkoan ere, eta horren aurrean,

A la vista de la nueva documentación que acompaña a la solicitud del 3 de junio de 2013 de la Comisión Promotora «Itxas-Aurre», de la aportada por el Ayuntamiento de San Sebastián en contestación a la anterior, del resultado de la consulta popular celebrada el 10 de noviembre de 2013 y de los distintos informes emitidos con posterioridad, se realizan las siguientes consideraciones con relación a los requisitos exigidos por la normativa aplicable al presente procedimiento de segregación considerados incumplidos por el Decreto Foral 6/2010, de 16 de marzo:

Por una parte, con relación al requisito de viabilidad económica, se concluye que queda acreditado que el nuevo municipio de Igeldo sería viable económicamente, en la misma medida que también lo son otros municipios de su mismo tamaño.

Por otra parte, con relación a la concurrencia de motivos permanentes de interés público, el Consejo de Estado, tal y como se señala en el Decreto Foral 6/2010, de 16 de marzo, ha venido entendiendo en diferentes dictámenes que cuando se trata de una segregación para la constitución de nuevos municipios, la lista de supuestos determinantes del interés público a que se refiere el artículo 6 del TRRL no es cerrada, pues concluye con una referencia a supuestos análogos que abren un cierto margen a la interpretación legal. Se trataría de un concepto jurídico indeterminado necesitado de determinación en cada supuesto de hecho concreto.

En ese sentido, el Decreto Foral 6/2010, de 16 de marzo, identifica el interés público a considerar con el fin que persigue el legislador foral con relación a la política de ordenación territorial del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Y en consecuencia, señala que la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, establece en su preámbulo que «partiendo del actual mapa municipal y en aras de la racionalización del mismo, es claro que también a los órganos forales corresponde impulsar la fusión e incorporación de municipios, y siempre con el máximo respeto a la autonomía municipal y con el afán de mejorar la eficacia de la gestión de los recursos propios en todos los ámbitos de la vida social, económica y administrativa, y ofrecer consecuentemente unos mejores servicios a menor coste, atendiendo la demanda de la sociedad actual». Y también que «la suficiencia económico-financiera para la mejora de la prestación de los servicios públicos locales, el nivel de población mínimo y una configuración territorial bastante para un desarrollo armonioso, serán requisitos imprescindibles para la constitución de nuevos municipios».

Igualmente, el citado decreto foral identifica ese interés público con la afirmación recogida en la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el sentido de que en el territorio «existen 88 municipios, sin embargo, 57 de ellos tiene menos de 5.000 habitantes y más del 25% de la población se concentra en la capital. Esto delimita una estructura municipal en la que la mayor parte de la población vive en unos pocos municipios, existiendo una gran cantidad de municipios de tamaño muy reducido. Ante esta realidad, y siendo esencial la suficiencia económico-financiera para atender las exigencias que requiere la prestación de los servicios públicos, resulta necesario definir adecuadamente y reforzar el asociacionismo municipal»; e interpreta que dicha afirmación es la manifestación de una voluntad reacia a la fragmentación de las estructuras municipales y proclive a la fusión e incorporación de municipios.

Sin embargo, a la vista de la voluntad de los vecinos de Igeldo, expresada en el resultado favorable a la segregación de la consulta popular celebrada el pasado 10 de noviembre de 2013, así como en el resultado de la consulta popular realizada en 1995 y en la constante reivindicación de la desanexión

Diputatuen Kontseiluak uste du ezin diola entzungor egin herritarren borondatea errespetatzen duen erabaki baten zilegitasun demokratikoari eta borondate hori herri onurako arrazoi izan daitekeela.

Are gehiago, Diputatuen Kontseiluak ulertu du, aipatu foru arauditik honako hau ere ondoriozta daitekeela: Udalerrien tamaina eta kopurua ez da berez helburua araugilearentzat; lurralde antolamenduaren funtsezko helburua, nahiz ez bakarra, nahikotasun ekonomikoa da, beti ere udal eskumenei dagozkien zerbitzu publikoak kalitate eta eraginkortasunez eman ahal izateko, hori izanik gainerako baldintzen azken helburua ere, alegia, biztanleria nahikoa izatearena eta udalerrien atxikitze eta bategiteak sustatzearena ere. Eta azken buruan, herritarren borondatea ere baldintza horren menpe geratu beharko da.

Baina bideragarritasun ekonomikoa nahiz gainerako baldintzak aplikagarri den araudiak ezarri moduan betez gero, eta hala geratu da egiaztatua espedientearen aurrez ezarri moduan, interpreta daiteke aipatu foru araudian herri onurako beste arrazoi batzuk aurki daitezkeela, justifikatzen dutenak araudi horretatik ondorioztatzen den foru lurralde politikarekin bat datorren bereizketa bat.

Izan ere, 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak honako hau ere jasotzen baitu: «legegileak (...) nortasun berezkoen edo historikoaren sentiberatasuna eta nahia, Gipuzkoak gaur hirigintzaren gizarte-ekonomiaren eta administrazioaren alorretan duen plangintzak behar duen arrazionaltasunarekin eguneratzearekin eta eraginkortasunarekin uztartu beharko baitu». Eta antzera, arauaren III. tituluak udalez azpiko erakundeak arautzen dituela ezartzen da, honako asmoa adieraziz: «udalerria eratzeko eraginkortasunik ez duten auzotarren borondate edo nahikunde batzuk, (...) bidera ditzakete», eta honako hau gehituz: «auzotarren partaidetzarako bitarteko egokiak izan daitezke». Ondorioz, interpreta daiteke legegileak bere lurralde politikan herri onura herritarren borondatea errespetatzearekin ere identifikatzen duela, herrigune bereziak hala nahiz izanez gero bere autonomia nahia asebetetzeko helburuarekin eta herritarren partaidetza sustatzeko helburuarekin.

Eta zentzu berean, 2007ko apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauak, udal elkarteak arautzen ditunean, azken finean udalen bategitearen aurrean alternatiba malgu eta borondatezko bat baino ez du eskaintzen, beti ere ekonomi finantza baliabideen askitasuna bermatzeko, eta ondorioz, zerbitzu publikoak ematean kalitate, arrazionalizazio eta efizientzia eskakizunak betetzeko. Zentzu horretan interpreta daiteke arauak udal gisa eratu diren auzo komunitateen autonomia ez sakrifikatzeko helburuarekin identifikatzen duela herri onura, bere helburua lurralde eremu handiago batetik eman beharreko zerbitzuentzat bitartekoak eskaintzea izango bailitzateke.

Horregatik, ondorioztatzen da foru araudian herri onura identifika daitekeela herritarren borondatea errespetatzearekin, eta auzokide taldeek euren interesak autonomiaz kudeatzeko duten nahia errespetatzearekin, kasu honetan, udalherri berri bat eratuz.

Aurrekoa ikusirik, eta aplikagarri den araudian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuta, Igeldoko bereizketa proiektua aintzat hartzeko gutxieneko ezinbesteko oinarri diren heinean, Diputatuen Kontseilu honek uste du Igeldo udalherri berria eratzeko erabakia komenigarria eta egokia dela hain zuzen ere herritarren borondatearekin bat datorrelako.

Aurreko arrazoibideetan oinarrituz, bidezkoa da errebokatzeko eta indarrak gabe uztea 6/2010 Foru Dekretua, martxoaren 16koa, Igeldo Donostiako udalherriak banantzeko eta udalherri berria eratzeko eskaera ezesten duena.

durante el periodo transcurrido entre ambas consultas, este Consejo de Gobierno Foral considera que no puede obviar la legitimidad democrática de una decisión respetuosa con la voluntad vecinal y que el respeto a dicha voluntad puede conformar el requerido motivo de interés público.

Es más, este Consejo de Gobierno Foral entiende, que de la normativa foral citada, también se puede deducir que el tamaño y número de los municipios no es un fin en sí mismo para el legislador, sino que el fin fundamental, que no único, de la organización territorial consiste en la garantía de la suficiencia económica para la prestación eficaz y de calidad de los servicios públicos correspondientes a las competencias municipales, fin último al que serviría también la exigencia de un contingente de población suficiente y la de impulso de la fusión e incorporación de los municipios. Y al que en última instancia incluso la voluntad vecinal debe quedar supeditada.

Pero cumplido el requisito de la viabilidad económica en los términos exigidos por la normativa aplicable, y el resto de condiciones establecidas en la misma, y efectivamente acreditadas en el expediente en los términos ya expuestos, se puede interpretar que de la normativa foral citada se extraen otros motivos de interés público, que justifican una segregación acorde con la política territorial foral que de dicha normativa se deduce.

Y es que la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, también señala que el legislador «debe aunar los sentimientos y aspiraciones de identidad propia o histórica, con las exigencias de la racionalidad, la actualización y eficacia exigidas por la planificación urbanística, socioeconómica y administrativa que demanda Gipuzkoa hoy.» Y en el mismo sentido, se señala que el título III de la norma regula las entidades locales menores para «canalizar algunas voluntades vecinales que no tienen virtualidad para la constitución de nuevos municipios», que pueden servir de «instrumento adecuado de participación vecinal». Luego asimismo cabe interpretar que el legislador en su política territorial también identifica el interés público con el respeto a la voluntad vecinal, con el fin de configurar un territorio en el que las poblaciones diferenciadas que así lo deseen satisfagan su deseo de autonomía, y el objetivo de impulso de la participación ciudadana.

De hecho, la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, al regular formas de asociación municipal, no hace sino ofrecer una alternativa flexible y voluntaria a la fusión de municipios para garantizar esa suficiencia económico-financiera con la que atender las exigencias de calidad, racionalización y eficiencia en la prestación de los servicios públicos. En ese sentido, puede interpretarse que en la norma se identifica el interés público con el objetivo de no sacrificar la autonomía de las comunidades vecinales constituidas en municipios, pues su fin no sería otro que ofrecer mecanismos para aquellos servicios que requieren ser prestados desde un ámbito territorial superior.

Por ello, se concluye que en la normativa foral puede identificarse el interés público con el respeto a la voluntad y a las aspiraciones de las colectividades vecinales de gestionar con autonomía los intereses propios, en este caso, a través de la constitución de un nuevo municipio.

Visto lo anterior, y quedando acreditado el cumplimiento de los requisitos exigidos por la normativa aplicable como presupuesto mínimo necesario e indispensable para que pueda tomarse en consideración el proyecto de segregación de Igeldo, este Consejo de Gobierno Foral considera que la decisión de la creación del nuevo municipio de Igeldo es conveniente y oportuna precisamente por ser respetuosa con esa voluntad vecinal.

En base a las consideraciones anteriores procede revocar y dejar sin efecto el Decreto Foral 6/2010, de 16 de marzo, por el que se desestimó la solicitud de segregación de Igeldo del municipio de San Sebastián para constituir un nuevo municipio.

Adierazitako gutzia kontuan hartuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta Lege Aholkularitzako Batzordea entzun ondoren, gaurko bileran Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehena. Errebokatzea 6/2010 Foru Dekretua, martxoaren 16koa, Igeldo Donostiako udalerritik banantzeko eta udalerrri berria eratzeke eskaera ezesten duena.

Errebokatu egiten da eta indarrrik gabe uzten da 6/2010 Foru Dekretua, martxoaren 16koa, Igeldo Donostiako udalerritik banantzeko eta udalerrri berria eratzeke eskaera ezesten duena.

Bigarrena. Igeldo bereiztea eta udalerrri berri bat eratzea.

Onartzen da lurralde historiko honetako Donostia udalerriko Igeldo herrigunea bereiztea eta udalerrri banandu berri bat eratzea.

Hirugarrena. Izena eta herriburua.

Udalerrri berriak Igeldo izango du izena eta herriburua «Igeldo herria» izeneko herrigunean izango du.

Laugarrena. Lurralde mugak.

Igeldo eta Donostia udalerrien lurralde muga berriak bat datoz Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasoz diren Igeldo auzoaren muga lerroarekin, I. eranskinean jasotzen den moduan.

Igeldo udalerrri berriak Usurbil eta Orío herriekin dituen mugak bat etorriko dira Donostia udalerrriaren eta udalerrri horien orain arteko muga lerroekin.

Bosgarrena. Ondasunak.

Udalerrri berriak II. eranskinean ezartzen den zerrendan jasotako ondasunak izango ditu, nahiz eta zerrenda hori ez den murriztailea eta zehatza, eta gehitu ahal izango zaizkio jaso ez diren beste ondasun batzuk. Ondarea kargarik gabe eskualdatuko da. Arbitraje Batzordearen eskumena izango da sor litezkeen auziak ebaztea.

Udalerrri berriak bere ondasunen katalogo eta inbentarioa, nahiz ondasun horien kalifikazio juridikoa egin beharko ditu.

Seigarrena. Eskubide eta betebeharrak.

1. Udalerrri berriak hartzen dituen ondasunen izaera ikusita eta kontuan harturik Donostiako Udalaren eta Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren txostenetan jasotako arrazoibideak, udalerrri berriari ez zaizkio Donostiako Udalak eduki litzakeen beste eskubiderik besterenduko, eta ondorioz, Donostiako Udalak dituen zor edo kredituetan ere ez du parte hartzerik bere gain hartuko.

2. Donostiako Udalak, diru-bilketa zerbitzua eskuz aldatu bitartean, kudeatu eta bildutako Igeldoko tributuei dagozkien zenbatekoak emango dizkio Igeldoko Udalari.

3. Foru dekretu hau onartzeak ez dio eragingo 1994ko abenduaren 23ko 15/1994 Foru Arauan aurreikusitako Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren dotazioari, nahiz eta fondoko

En virtud de lo expuesto, a propuesta de la diputada foral titular del Departamento de Administración Foral y Función Pública, oída la Comisión Jurídica Asesora, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Primero. Revocación del Decreto Foral 6/2010, de 16 de marzo, por el que se desestima la solicitud de segregación de Igeldo del municipio de San Sebastián para constituir un nuevo municipio.

Se revoca y queda sin efecto el Decreto Foral 6/2010, de 16 de marzo, por el que se desestima la solicitud de segregación de Igeldo del municipio de San Sebastián para constituir un nuevo municipio.

Segundo. Segregación de Igeldo y constitución de un nuevo municipio.

Se aprueba la segregación del núcleo de población de Igeldo perteneciente al municipio de San Sebastián de este territorio histórico y su constitución en un nuevo municipio independiente.

Tercero. Denominación y capitalidad.

El nuevo municipio se denominará Igeldo y tendrá su capitalidad en el núcleo central denominado «pueblo de Igeldo».

Cuarto. Límites territoriales.

Los nuevos límites territoriales de los términos municipales de Igeldo y San Sebastián serán coincidentes con la línea de delimitación del barrio de Igeldo que se contiene en el Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián, que se recoge en el documento anexo I.

Los límites del nuevo municipio de Igeldo con los municipios de Usurbil y Orío coincidirán con la hasta ahora delimitación territorial del municipio de San Sebastián con los citados municipios.

Quinto. Bienes.

El nuevo municipio contará con los bienes que se recogen en la relación que se acompaña en el documento anexo II, sin que la misma tenga carácter limitativo o exhaustivo, y sin perjuicio de la existencia de otros bienes omitidos que debieran haberse incluido. El patrimonio estará exento de cargas. Competerá a la Comisión Arbitral resolver las cuestiones litigiosas que pudieran surgir al respecto.

El nuevo municipio procederá a confeccionar el catálogo e inventario de sus bienes y la calificación jurídica de los mismos.

Sexto. Derechos y obligaciones.

1. Dada la naturaleza de los bienes que se incorporan al nuevo municipio y teniendo en cuenta las consideraciones que se recogen en los informes del Ayuntamiento de San Sebastián y del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral, no se transferirán al nuevo municipio otros derechos que pudiera tener el Ayuntamiento de San Sebastián, y, en consecuencia tampoco asumirá participación alguna en las deudas o créditos que tenga contraídos el mismo.

2. El Ayuntamiento de San Sebastián transferirá las cantidades correspondientes al Ayuntamiento de Igeldo, relativos a los tributos gestionados y recaudados por el primero, en tanto que se produzca el traspaso de los servicios de recaudación.

3. La aprobación del presente decreto foral no afectará a la dotación del Fondo Foral de Financiación Municipal prevista en la Norma Foral 15/1994, de 23 de diciembre, si bien la cuan-

zenbateko osoa lurralde historikoko udalerrien artean banatzeko Igeldo udalerrri berriari dagokion kuota finkoa kontuan hartu beharko den.

Zazpigarrena. Udal zerbitzuak ematea.

Igeldo udalerrriak udalerrri berriaren lurraldean orain arte ematen ari ziren zerbitzu publiko guztiak ematen jarraitu beharko du, zuzenean edo, zerbitzu mankomunatu edo kontsorziatuen kasuan, bereizketa egin arte ematen ari ziren baldintza berberetan. Edonola ere etorkizunean udalak beste aukera batzuk egin ahal izango ditu, beste elkarte formulak onartu, kontsorzioetan sartu edo hitzarmenak sinatu, halakorik komenigarritzat edo beharrezkotzat joko balu dagokion zerbitzua emateko.

Zortzigarrena. Hirigintzako plangintza orokorra.

Igeldon aplikatu beharreko hirigintzako plangintza orokorra egun indarrean dagoen Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean zehazten da, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren txostenean ezarri moduan.

Udalerrri berriak indarrean dagoen plangintza berrikusi edo aldatu ahal izango du hasierako eremu geografikoaren aldaketak eragindako lurraldearen egitura orokor eta organikoari buruzko irizpide berriak onartze aldera, beti ere 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 102 eta 103 artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Bederatzigarrena. Erakunde arteko laguntza eta lankidetzatza.

Bereizketa ondorengo urtean, Donostiako Udalak dagokion laguntza tekniko, ekonomiko eta juridikoa emango dio Igeldo udalerrri berriari; halaber, funtsezko zerbitzu publikoak ematen jarraituko du, dagokion konpentsazio ekonomikoa jasoz, baldin eta Igeldoko Udal berriak bere gain har ditzakeen arte.

Hamargarrena. Batzorde kudeatzailea eratzea.

Foru Aldundiak udalerrri berria eratu dela jakinaraziko dio dagokion hauteskunde batzordeari eta batzorde kudeatzaile bat eratuko du, indarrean dagoen hauteskunde araudiarekin bat. Batzorde Kudeatzaileak udal berriaren gestioa bere gain hartuko du lehen udal hauteskundeak egin eta udal berria eratu artean.

Igeldoko Udal Batzorde Kudeatzailea udalerrriari legez dagokion zinegotzi adina kidez osatuko da eta bere lehendakaria batzordeko kide guztiak hautatuko dute, beti ere alkatea aukeratzeko prozedura jarraituz.

Hamaikagarrena. Arbitraje Batzordea.

Honako foru dekretu hau interpretatzea eta bereizketa dela eta etorkizunean sor litezkeen auziak ebaztea Arbitraje Batzorde baten esku geratuko dira. Arbitraje Batzordearen osuera ondokoa da:

Lehendakaria: Foru Administrazioako eta Funtzio Publikoko foru diputatua edo dagokion pertsona, esku ordez, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko foru diputatu edo zuzendari nagusi bada.

Bokalak: Igeldoko Batzorde Kudeatzaileko, edo, hala bada-gokio, Igeldoko Udaleko hiru kide, eta Donostiako Udaleko beste hiru kide.

tía total del Fondo se distribuirá entre los municipios del territorio histórico tomando en consideración la cuota fija que corresponda al nuevo municipio de Igeldo.

Séptimo. Prestación de servicios municipales.

El municipio de Igeldo seguirá prestando todos los servicios públicos que venían siendo prestados en el territorio del nuevo municipio, directamente o, en caso de tratarse de servicios mancomunados o consorciados, en los mismos términos en los que venían siendo prestados hasta el momento de la segregación, todo ello sin perjuicio de la posibilidad de adoptar en el futuro otras fórmulas asociativas, establecer consorcios, o suscribir convenios si fuera conveniente o necesario para la adecuada prestación del servicio.

Octavo. Planeamiento urbanístico general.

El planeamiento urbanístico general aplicable a Igeldo viene determinado por el Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián vigente a la fecha tal y como se señala en el informe emitido por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

El nuevo municipio podrá proceder a la revisión o modificación del planeamiento vigente al objeto de adoptar nuevos criterios respecto de la estructura general y orgánica del territorio motivada por la modificación del espacio geográfico inicial, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 102 y 103 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Noveno. Asistencia y colaboración interinstitucional.

Durante el año siguiente a la segregación, el Ayuntamiento de San Sebastián prestará al nuevo municipio de Igeldo la debida asistencia técnica, económica y jurídica, a la vez que seguirá prestando los servicios públicos esenciales, con las compensaciones económicas que pudieran resultar procedentes, hasta que puedan ser asumidas por el nuevo Ayuntamiento de Igeldo.

Décimo. Constitución de la Comisión Gestora.

La Diputación Foral procederá a notificar la constitución del nuevo municipio a la Junta Electoral correspondiente y a la constitución de una Comisión Gestora de conformidad con el ordenamiento electoral vigente, que asumirá la gestión del nuevo municipio durante el período que medie hasta la celebración de las primeras elecciones municipales y la constitución del nuevo Ayuntamiento.

La Comisión Gestora Municipal de Igeldo estará compuesta por un número de miembros igual al de concejales que le corresponden legalmente, y estará presidida por un presidente o presidenta elegida entre todos los miembros de la Comisión, con arreglo al procedimiento establecido para la elección del alcalde o alcaldesa.

Undécimo. Comisión Arbitral.

La interpretación del presente decreto foral, así como la resolución de las cuestiones litigiosas que con motivo de la segregación puedan originarse en el futuro se resolverán por una Comisión Arbitral cuya configuración es la siguiente:

Presidencia: La diputada foral de Administración Foral y Función Pública o persona en quien delegue con rango de diputado o diputada foral o director o directora general de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Vocalías: Tres miembros de la Comisión Gestora de Igeldo o, en su caso, Ayuntamiento de Igeldo, y tres miembros del Ayuntamiento de San Sebastián.

Idazkaria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuko funtzionario bat.

Hamabigarrena.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* eta *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, horren aurretik, partikularrek aukera dute berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertze koaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2013ko abenduaren 17a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martin Garitano Larrañaga.

FORU ADMINISTRAZIOKO ETA
FUNTZIO PUBLIKOKO DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Garbiñe Errekondo Salsamendi.

(2681)

(11845)

Secretaría: Un funcionario o funcionaria del Departamento de Administración Foral y Función Pública de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Duodécimo.

El presente decreto foral se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, en el *Boletín Oficial del País Vasco* y en el *Boletín Oficial del Estado*.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 17 de diciembre de 2013.

EL DIPUTADO GENERAL,
Martin Garitano Larrañaga.

LA DIPUTADA FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
ADMINISTRACION FORAL Y FUNCION PUBLICA,
Garbiñe Errekondo Salsamendi.

(2681)


(11845)

I. ERANSKINA

Lurralde mugak

ANEXO I

Límites territoriales



II. ERANSKINA

ANEXO II

Igeldo banatzearen ondorioz eragindako ondasunen zerrenda

1. Igeldo Plazako 1. zk. duen eraikina. Igeldoko Eskola Publiko zaharra.
2. Igeldoko pilotalekua.
3. Igeldoko herrian dagoen ur depositua.
4. «Igeldo» LHI – Lehen Hezkuntzako Ikastetxea; Hirigintzako IG 07 Esku Hartze Areako –Igeldoko Zabalpena– g.000.3 lursaila – Lizardia, plaza 1».
5. Igeldoko hilerria - IG 07 Esku Hartze Areako –Igeldoko Zabalpena– g.000.1 lursaila.
6. Itsas Aurre Kultur Etxea –IG 07 Esku Hartze Areako –Igeldoko Zabalpena– g.000.2. lur saila.
7. Igeldoko herri bideak, I. eranskinean aurreikusitako lurralde mugen barruan daudenak:
 - Lekueder - Zingita bidea.
 - Tximistarri bidea.
 - Marabieta eta Lapabide bidea.
 - Harritxulo bidea.
 - Agiti bidea.
 - Agitixabal bidea.
 - Belabietatik Oriorako bidea.
 - Amezti Bekoa - Amezti Zar bidea.
 - Gaztaintxabaleta bidea.
 - Arretxe bidea.
 - Ganbaretxe bidea.
 - Iriarte bidea.
 - Gurutzeta bidea.
 - Iruin bidea.
 - Ku bidea.
 - Zankardegi bidea.
 - Gorosti bidea.
 - Buztintxuri bidea.
 - Lauspeltz bidea.
 - Txalin bidea.
 - Mendizorrotz bidea.
 - Artikula bidea.
 - Murgil eta Igara bidea.
 - Egioleta bidea.
 - Etxebeste bidea.
 - Erauntzeta bidea.
 - Erauntzeta-Borda bidea.
 - Kalbario bidea.
 - Pilotegi bidea.
 - Ganbo bidea.
 - Mendigain bidea.
 - Gudamendi bidea.
 - Pokopandegi bidea.
 - Almortza bidea.
 - Lasarmendi bidea.

Relación de bienes afectados por la segregación de Igeldo

1. Edificio en plaza Igeldo, n.º 1. Antiguo Colegio Público de Igeldo.
2. Frontón de Igeldo.
3. Depósito de aguas en el pueblo de Igeldo.
4. Centro de Enseñanza Primaria CEP «Igeldo» LHI, en la parcela g.000.3 del A.I.U. IG 07 Igeldoko Zabalpena. Lizardia, plaza 1».
5. Cementerio de Igeldo Parcela g.000.1 del «A.I.U. IG 07 Igeldoko Zabalpena».
6. Casa de Cultura Itsas Aurre. Parcela g.000.2 del «A.I.U. IG 07 Igeldoko Zabalpena».
7. Caminos públicos de Igeldo, que se encuentren dentro de los límites territoriales previstos en el anexo I.
 - Camino de Lekueder - Zingita.
 - Camino de Tximistarri.
 - Camino de Marabieta y Lapabide.
 - Camino de Harritxulo.
 - Camino de Agiti.
 - Camino de Agitixabal.
 - Camino de Belabieta a Orío.
 - Camino de Amezti Bekoa - Amezti Zar.
 - Camino de Gaztaintxabaleta.
 - Camino de Arretxe.
 - Camino de Ganbaretxe.
 - Camino de Iriarte.
 - Camino de Gurutzeta.
 - Camino de Iruin.
 - Camino de Ku.
 - Camino de Zankardegi.
 - Camino de Gorosti.
 - Camino de Buztintxuri.
 - Camino de Lauspeltz.
 - Camino de Txalin.
 - Camino de Mendizorrotz.
 - Camino de Artikula.
 - Camino de Murgil e Igara.
 - Camino de Egioleta.
 - Camino de Etxebeste.
 - Camino de Erauntzeta.
 - Camino de Erauntzeta-Borda.
 - Camino de Calvario.
 - Camino de Pilotegi.
 - Camino de Ganbo.
 - Camino de Mendigain.
 - Camino de Gudamendi.
 - Camino de Pokopandegi.
 - Camino de Almortza.
 - Camino de Lasarmendi.

— Amezti Goikoa bidea.

— Arburu bidea.

8. Beste bide, plaza, parke, berdegune, lursail, higiezin, ekipamendu edo azpiegitura batzuk, gaur egun Donostiako Udalaren titularitatekoak direnak eta I. eranskinean adierazitako lurralde mugen barruan daudenak, hamaikagarren atalean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak finkatutako eran.

— Camino de Amezti Goikoa.

— Camino de Arburu.

8. Otros viales, plazas, parques, zonas verdes, terrenos, inmuebles, equipamientos e infraestructuras que en la actualidad sean de titularidad del Ayuntamiento de San Sebastián y que se encuentren dentro de los límites territoriales establecidos en el anexo I, en los términos que se concreten por la Comisión Arbitral prevista en el apartado undécimo.